

**OHIKO OSOKO BILKURA MONOGRAFIKOA**
ESPETXE EREDUA**Legebiltzarra-Vitoria-Gasteiz****2019-03-13 / 9:30**

Eskerrik asko, Presidente Andrea. Lehendakari, legebiltzarkideok.

Egun on guztioi.

Pasa den 2018ko azaroaren 15ean Euskal Herria Bilduko legebiltzarkideek Ganbera hobetako Mahaiari igorri zioten Espetxe Ereduari buruzko Ohiko Osoko Bilkura Monografikoa egiteko ekimena. Eredu hori Gernikako Estatutuan aurreikusitako transferentzia egindakoa jarri beharko da abian.

Zalantzarik gabe, abian den eztabaida ikusita, aberasgarria izango da Euskadin garatuko den espetxe-eredua definitzeko.

Hain zuzen ere, 1979an onartutako Gernikako Estatutuaren 10.14 artikulua aurreikusten duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio “adinera heldugabeen babes eta tutoregorako, gartzelatzeko eta gizartean berrintegratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua”, baita “gartzelai buruzko legegintza” ere (12.1 artikulua).

Adingabeen babes eta tutoretza gaietarako eskumena transferitu bada ere, espetxe-erakunde eta -establezimenduei dagozkien gaiak ez dira eskualdatu.

Egoera ugarik ekidin dute, eta ez ditut orain aipatu eta ebaluatuko, Estatutuak aurreikusitako hori ez betetzea.

2016ko azaroan EAJ-PNVk eta PSE-EEK adostutako gobernagarritasun-akordioak, Euskadi 2020 Gobernu Akordioan jasotakoak funtsezko ardatz gisa du gure Erkidegoaren autogobernua garatu eta sustatzeko konpromisoa.

Lehentasun horien artean dago gaur eztabaidagai dugun espetxe-zentroen gaineko transferentzia lortzea.

Alderdi Popularreko Gobernuak ez ziren bat etorri egungo Eusko Jaurlaritzaren asmo politiko garbiarekin.

Espainiako Gobernuan aldaketa etorri arte ez zen bildu Transferentzien Batzorde Mistoa.

Zazpi urteren ostean, pasa den urte amaieran, egoera desblokeatu zen eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak egutegi bat ezarri zuten, 33 transferentziak egikaritzeko; horien artean dago Espetxeei dagokiena.

Eusko Jaurlaritzak bi gobernuen arteko elkarrizketa eta konpromiso politikoa txalotzen ditu, legeen eta segurtasun juridikoaren errespetutik autogobernua hobetzen joateko.

Jaun/andreok, akordioan aurreikusitakoa Estatutuak eta Konstituzioak xedatutakoa betetzea besterik ez da.

Ezer baino lehen, argitu nahiko nuke transferentzia-akordioa ez dela kontzesioa, ezta prebenda ere, eta gure lege-markoak bete-betean barne hartzen du.

Katalunian transferitu ziren gaiak dira, hau da, Espetxe Erakundearen gaineko zuzendaritza, antolakuntza eta ikuskaritza, baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden zentroen espetxe-jardueraren gainekoak ere.

Langile eta bestelako gaietarako dagokienez, Espetxe Erakundeetako langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egiturara gehituko lirateke, eta dagokien ondasun higiezinetan.

Hasieratik argi utzi nahi dut espetxe-politika ez dela transferentzia-gaietako bat; Estatuaren eskumena izango da.

Gure jarduteko markoa 1/1979 Lege Organikoak, irailaren 26koak, Espetxeetarako Lege Organiko Orokorrak ezartzen du (5/2003 Lege Organikoak eta 6/2003 Lege Organikoak aldatzen dute), baita 190/1996 Errege Dekretuak, Espetxeen Erregelamendua arautzen duenak ere.

Hori dela eta, Lan eta Justizia Sailaren ustez, agintaldiaren hasieratik beharrezkoa da transferentzia egindako unean Euskadin aplikatuko den espetxe-eredua definitzea.

Gure ereduak gaiari buruzko printzipio konstituzional eta Europako doktrinaren aldeko apustua eta konpromisoa adierazten ditu.

Eta espetxeratutako herritar guztiei zuzenduta dago, egindako delituaren izaeragatik ezberdintasunik egin gabe.

Helburua da herritar horiek beren erantzukizuna eta eragindako kaltea gain hartzea.

Epailleek ezartzen dituzte zigorrak eta, horixe abiapuntu hartuta, horiek izango dira kasu bakoitzean betetze-erregimenari buruz erabakiko dutenak.

Lan eta Justizia Sailaren betebeharra izango da epaileen esku jartzea erabakiak berme osoz hartzeko behar dituzten bitarteko eta tresnak, eta erabaki horiek izan beharko dira birgizarteratzearen helburu konstituzionalarekin betetzeko egokienak.

Aipatu dudan moduan, Gazte Justiziari buruzko eskumena transferitua dugu, baina baditugu beste batzuk ere, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan zerbitzua eskaintzen duten Irakasle langileena edo espetxeetako osasun arloari dagokiona.

Beharrezkoa da nabarmentzea, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean 2011n sinatutako hitzarmenak, ingurune irekian zigor eta neurri guztiak kudeatzeko aukera ematen digutenak.

Gure aldetik, hainbat ekimen hartu ditugu, jarraian azalduko ditudanak.

Ekimenetako bat euskal gizarteak espetxeen transferentziari buruzko duen iritzia jasotzea izan da.

Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailaren Euskobarometro ikerketa-taldeari eskatu genion, 2018 amaieran, gaiari buruzko galderak egin zitzaizkion.

Emaitzak adierazgarriak izan dira eta, gure ikuspuntutik, positiboak, hona hemen ondorioak laburtuta:

- Elkarrizketatutako hiru pertsonatik bik (% 68k) positibotzat hartzen du eskumena Eusko Jaurlaritzarena izatea, eta % 11k negatibotzat hartzen du.
- Gehiengoaren iritzi hori indartu egiten da, hiru lurralde historikoetan adierazten delako, emakumeen eta gizonen artean adierazten delako, adin-talde guztietan, maila ekonomiko edo ikasketak maila guztietan, euskal eta erdal hiztunetan eta hautesleria mota guztietan, PP eta Ciudadanos alderdietako hautesleen artean izan ezik.
- Gehienek transferentziaren alde egiteko arrazoiaren artean aipatu dute kudeaketa autonomikoaren eraginkortasunean duten konfiantza.

Noizbait aipatu izan dudana moduan, legealdi hasieratik sailburuaren eta Saileko Justizia alorraren helburua izan da egoeraren diagnostikoa izatea.

Horrek Euskadin espetxe-ereduaren oinarri izateko printzipio eta ildo estrategikoei buruzko hausnarketa egiteko aukera emango liguke.

Horretarako, lantalde bat eratu genuen, Justizia sailburuordetza buru zuela, eta bertako arduradun politiko eta teknikariek osatuta, baita Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak osatuta ere.

Talde horretan parte hartu dute ere Kriminologiaren Euskal Institutuak eta Arartekoak, baita akademia-, espetxe-alorreko eta hirugarren sektoreko profesionalek ere, azken horiek norbanako gisa.

Horiei guztiei eskertu nahi dizkiet haien dedikazioa eta egindako ekarpenak.

Lantalde horrek helburu dugun eredia sortzeko ekarpenak egin ditu.

Une honetan, Saila proposamen horiek aztertzen ari da, gure balorazioetan oinarritzen diren beste ekarpen batzuk gehitu dira, eta beste instantziekin alderatzen ari dira, Botere Judizial eta Fiskaltzako kideekin, esaterako.

Halaber, Saila harremanetan dago Kataluniako Generalitateko Justizia Sailarekin, bertako transferentzia-prozesua eta arduradun katalanek eskumen horren kudeaketaren inguruan dituzten zailtasun eta balorazioak ezagutu eta zuzenean aztertzeko.

Ez da beharrezkoa nabarmentzea Ohiko Osoko Bilkura Monografiko honek duen garrantzia; aurreikusi denez, behin betiko dokumentuari gehituko zaizkion ebazpen-proposamenak onartuko ditu.

Beraz, ezin dizuet, une honetan, dokumentu itxi bat eskaini, baina nire hitzartzean ildo orokorrak azalduko dizkizuet eta, noski, amaitutakoan emaitzak igorriko zaizkizue.

Aukera ona izango da, baita ere, herritarrek sumatu dezaten zein den gure eredia, eta alorrari buruzko printzipio konstituzionalak eta Europako doktrinaren aldeko gure apustu eta konpromisoa.

Eredua definitzeko, egungo egoeraren analisia hartu dugu abiapuntu, eta hori hiru ataletan banatu dugu: ingurune irekiko zigor- eta neurri-sistemaren egoeraren diagnostikoa, zigortutako pertsonen gizarteratzeaz

arduratzen den sarearen diagnostikoa eta barneratze-erregimeneko espetxe-sistemaren diagnostikoa.

Aurrez aipatu dudanez, 2011n Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuak eta Barne Ministerioko Espetxe Erakundeetako Idazkaritzak sinatutako Hitzarmenaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoa da ingurune irekiko zigor eta neurri guztiak kudeatzen dituen erkidego bakarra, Katalunia salbu.

Horretarako eratu da Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua.

Zerbitzu horrek birgizarteratzearen aldeko apustu irmoa egiten du eta, horretarako, diziplina anitzeko taldeak ditu, ingurune irekiko zigorak bete daitezzen epaitegi betearazleekin elkarlanean.

Nabarmendu nahiko nuke, estatu mailan aitzindariak izateaz gain, Europan ere hala garela, programa berritzaileak baititugu, hala nola, GAKOA programa genero-indarkeriaren delituengatik zigortutako gizonak birgizarteratzeko, eta bide-segurtasunaren aurkako delituentzako sentsibilizazio- eta kontzientziazio-programa.

Etorkizunean, gorroto-delituak, sare sozialetako delituak eta bestelakoak jorratzeko beste programa batzuek abian jartzeko aztertzea aurreikusi du.

Gure erkidegoan abian jarri den beste esperientzia positibo bat izan dira patologia psikiatrikoak dituzten pertsonentzako segurtasun-neurriak Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuak, epaile epai betearazleetako epaileek eta Osakidetzak elkarlanean betetzen direla.

Zentro Psikiatriko zibiletan eta AITA MENNIn betetzen dira, Espetxeetako Psikiatrikoetan bete ordez.

Horren ondorioz, birgizarteratze-tasa ia % 100ekoa da.

Errealitateak Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua funtseko tresna bihurtzen du, aparteko dedikazio profesionala du, baina saturazio-maila ere altua da.

2018an 4.966 pertsona artatu ditu zerbitzuak: 569 emakumezkoak (% 11,46) eta 4.397 gizonezkoak (% 88,54).

Egoera hori ikusita, Saila baldintza-agiri berri bat osatzen ari da, kontratu berria esleitzeko- Kontratu horri esker, zerbitzuak 25 langile izatetik 40 izatera pasako da, eta 2019rako aurrekontua ia milioi bat euro haziko da.

Erdi-askatasuneko erregimen lortu duten zigorpeko pertsonen arreta beste lehentasunetako bat da.

Euskadin Hirugarren Sektoreko entitateen sarea dago, ESEN sarean bilduta (ESPETXE SAREA Euskadi-Nafarroa), oso profesionalizatu eta gaitua da, eta zigorpeko pertsonen birgizarteratzean egiten dute lan.

Lan eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak urtero diru-laguntzen deialdia egiten du, eta horiek eskatzeko aukera dute erdi-askatasun erregimeneko pertsonekin jarduerak egiten dituzte hirugarren sektoreko entitateek. Jarduera horiek honako hauek dira:

1. Programatutako irteerak eta landa-lanak.
2. Erresidentzia- eta ostatu-baliabideak.
3. Droga menpekotasuna duten pertsonentzako baliabideak.
4. Prestakuntza- eta trebakuntza-zentroak.
5. Enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroak.

Jarduera horiek egin ahal izan dituzte 312 pertsonak, 285 gizon eta 27 emakumeek, 2018 amaieran erdi-askatasuneko erregimenean zeudela.

Egungo egoera aztertzeke azken elementua Espetxeratze-erregimena da.

2018ko abenduan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetan zegoen biztanleria, atal irekietan daudenak, espetxeratze-erregimenean daudenak eta preso prebentiboak barne hartuta, 1.314 pertsonakoa da, 1.191 gizon eta 123 emakume. Espetxe-tasa, beraz, gutxi gorabehera, ehun mila biztanleko 60 espetxeratutakoa da.

Zentroetan 600 pertsonen ematen dute zerbitzu, funtzionario eta lan kontratadun langileen artean.

Horiei guztiei eskertu nahi diet delituak burututako pertsonen birgizarteratzea lortzeko erakutsi duten konpromisoa, baita mespretxu eta jazarpen egoeran beren bizitza arriskatuta garatu duten lan paregabeagatik eskertu ere.

Bahiketa eta hilketen biktima izandako funtzionarioei aintzatespen berezia eskaini nahi diet.

Arabako Espetxea da zigorpeko pertsonen zigorra betetzen duten espetxea, eta Basauri eta Martutenen daude, bereziki, espetxeratze prebentibo egoeran dauden pertsonak.

Nabarmentzekoa da espetxe horietako bat bera ere ez dagoela espetxe-erregimena lehen graduan betetzeko sailkatutako presoentzako pentsatua.

Beharrezkoa da adieraztea Espetxe berri bat eraikitzeko proiektua dagoela Zubietan (Gipuzkoan) eta, zalantzarik gabe, egun Martuteneko Espetxeak dituen baldintzak baino egokiagoak izango ditu; hortaz, Martuteneko Espetxea itxi egingo da.

Zubietako Espetxearen alboan aurreikusi da kokatzea Birgizarteratzeko Zentroa, Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengoa.

Jaun/andreok, Saila burutzen ari den hausnarketaren abiapuntua, besteak beste, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko akordioaren bidez garatutako esperientzia da, baita espetxe-kudeaketari eman nahi zaion norabideari buruzko oinarritzko akordioa ere.

Aurrekari horiei esker, eta kriminalitate-tasa murrizteko nazioartean arrakasta izan duten esperientziak aztertzeari esker, aipatu helburuak lortzeko jardun beharreko printzipioak argitzeko aukera dugu.

Horrez gain, eta diferentziak alde batera utzita, gure Gazte Justizia sistema esperientzia aberasgarria da, eta lortu nahi dugun eredu eraikitzen lagunduko digu.

Sei dira gure ereduaren oinarri izango diren printzipioak, eta jarraian azalduko ditut, laburtuta, hainbat alderdi.

Lehenengoa pertsonaren duintasun-printzipioa da, eta horrek barne hartzen ditu zigorpeko pertsona, biktimak eta bien inguruneke pertsonak.

Printzipio horretatik eratortzen dira zigorren humanitatearen azpi printzipioa eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioa.

Humanitatearenak espetxeetan bizigarritasunerako nahikoa baldintzak bermatu behar ditu, eta espetxeratutako pertsonen gizarte-loturei eutsi.

Gutxieneko esku-hartzeak esan nahi du jarrera kaltegarriei erantzuna emateko, ahal den heinean, izaera zigortzailea ekidingo dela.

Bigarren printzipioa espetxearen erabilera murriztea izango da.

Sistemak epaileei eskaini behar dizkie printzipio hori betetzen laguntzeko tresnak.

Hala ere, berau eraginkortasunez aplikatzeko lan pedagogiko handia egin behar da gizartean.

Beste printzipio bat komunitate-eremua birgizarteratzea da.

Hemen proposatzen den ereduak espetxe-harremanetan zerbitzu publiko arruntek presentzia izatea esan nahi du, eta horrek nabarmen indartzen du komunitatearekiko normalizazio eta orientazioaren irizpidea.

Komunitateak zigor-exekuzioko politiken artikulazioan parte hartu behar du, espetxe barruan zein kanpoan birgizarteratzeko prozesuetan.

Gainera, printzipio horren arabera, espetxea kanporantz irekitzeko beharra azpimarratzen da, kanpoko bizitzak barruko bizitzan eragin handiagoa izan dezan, gizarte-antolakundeekin harremanak eta

programak egiteko aukera zabaldu, eta zigorpeko pertsonak birgizarteratzeko bitartekoak bermatu.

Genero-ikuspegia txertatzea ereduan barne hartuko dugun beste printzipio bat izango da.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borroka eremu askotan lan egitea eskatzen du, eta horiek baldintza eta ezaugarri ezberdinak dituzte.

4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa, Eusko Legebiltzarrean otsailaren 18an onartutakoa, eta 3/2007 Lege Organikoa, emakume eta gizonen berdintasunerakoa erreferentziazko araudiak dira, eta administrazio-antolakunde oro behartzen du genero-ikuspegia aplikatzea barne zein kanpo-harremanetan.

Emakumearen beraren espetxeko egoerak eta horren izaera patriarkalak printzipio eta arau horiek aplikatzea zailtzen du. Hori dela eta, gure ereduak arreta berezia eskainiko die zigorpeko emakumeei zuzendutako ekimenei, eta arreta eskaintzen duten langileei genero-arloko prestakuntza egokia eskaintzen saiatuko da.

Bosgarren printzipioa berrezartze-ikuspegia txertatzea izango da.

Kaltetutako pertsonen konponketa, erantzukizun eta parte-hartzea kontzeptuak orekatzea izango litzateke, zigor-exekuzio ereduaren zeharkako alderdi gisa.

Biktimak, gaizkileak eta komunitateak parte hartzea da berrezartze-ereduaren gakoetako bat.

Gure eskumenen baitan aplikatzen ari garen ereduak da, eta testuinguru berrira hedatuko dugu, transferentzia exekutatuakoa.

Seigarren eta azken printzipioa politika publikoen integrazioa da.

Aurreko guztiak betetzeko ezinbesteko printzipioa da.

Horrek esan nahi du zerbitzu publiko ezberdinen arteko koordinazioa emango dela, erakunde ezberdinek ematen dituztenak (Eusko Jaurlaritzaren Sailak, Aldundiak, Udalak, Justizia Administrazioa, Abokatuen Elkargoak, etab.) eta beste gizarte-eragileek eskaintzen dituztenak, zigorren exekuziorako eta birgizarteratzea lortzeko.

Jarraian, gure espetxe-ereduak proposatu beharreko helburu estrategikoak zeintzuk diren deskribatuko dizuet.

Gure abiapuntua honakoa da: espetxeratzea muturreko baliabidea izango da, eta beste alternatibarik ez dagoen kasuetan baino ez da erabiliko.

Ez da zuzena pentsatzea zigor zorrotzek eta espetxeratzeek kriminalitatea, segurtasunik eza eta delituen berrerortzea murrizten dutela.

Aitzitik, gure ustez, prebentzio- eta birgizarteratze-zerbitzuak sortzea gizarte seguruago eta integratuagoa sortzen laguntzen duten inbertsioak dira.

Gure legediak berak eta Europako gomendioek bide horretan aurrera egitera bultzatzen gaituzte.

Nazioarteko erreferentziak ere baditugu, Finlandiakoa esaterako; bertan, adostutako eta epe luzean mantendutako politiken bidez, espetxe-tasa eta berrerortzea nabarmen murriztu dituzte.

Horretarako, espetxez besteko neurri alternatiboak erabili dituzte, eta zerbitzu publiko egokiak hautatu.

Gure lehenengo helburu estrategikoa da espetxeratutako pertsona kopurua 100.000 biztanleko 40 pertsonatik behera kokatzea.

Helburu horretarako, kontuan izan beharreko lehenengo kontua da preso/biztanleko ratioa Zigor Kodearen arabera dela, baita epaileek ematen dituzten epaien arabera ere.

Espetxeak kudeatuko dituztenek eta, batez ere, ingurune ireki eta erdi-askatasuneko zigor eta neurriak kudeatuko dituztenek, birgizarteratzerako

bitarteko eta sistema integrala eskaini beharko dituzte, epaileei ingurune irekiko neurriak ebazteko bermeak emateko.

Edonola ere, proposatutako espetxe-tasa pixkanaka lortu beharko da.

2018ko abenduko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, zigorpeko herritarren % 28 hirugarren gradu egoeran dago; 2013an % 11koa zen kopuru hori.

Bilakaera hori birgizarteratzeko Euskal Sare indartsuari esker lortu da, eta berau indartzen saiatuko gara.

Bigarren helburu estrategikoa honako hau da: espetxeratutako pertsonen % 40, gutxienez, erregimen irekian egotea.

Erregimen irekien aldeko apustua guztiz bat dator Espainiako legediarekin eta Europako gomendioekin.

Horiek birgizarteratzeko helburua dute, eta espetxe-zigorren exekuzioaren norbanako-printzipioa ezartzen dute; hala, pertsona bakoitzak zigorra birgizarteratzeko egokien duen erregimenean beteko du.

Erregimen irekiko hainbat modalitate indartzearekin batera, zigorra baldintzapeko askatasunean amaitzen duten pertsona kopurua haziko da eta horrek, hainbat azterketen arabera, espetxe- eta berrerortze-tasak murrizten lagunduko du.

Azterlan ezberdinek frogatu dute zigorra baldintzapeko askatasunean amaitu duten pertsonen % 15,7ko berrerortze-tasa dutela, eta erregimen horretara iristen ez direnek % 51koa.

Azken helburu estrategikoa da zigorpeko pertsonen berrerortze-tasa % 30en azpitik kokatzea.

Aipatu ditut jada erregimen irekiak berrerortzea ekiditeko dituen abantailak.

Egoera horretara heltzeko bi ildotan egin behar da lan:

Alde batetik, Birgizarteratzeko Euskal Sarea indartzea, eta Euskadin birgizarteratzearen eremuan esperientzia eta konpromisoa duen hirugarren sektorea dugu.

Beste aldetik, espetxeratze-erregimen sistema eraikitzea, espetxeratutako pertsonekin modu intentsiboan lan egin dezan, Espetxeko egonaldiaren unetik beratik, beren zigorra erregimen ireki eta baldintzapeko askatasunean amaitzeko baldintzetan kokatzen lagunduko diena.

Helburu horiek lortzeko, modu integralean jorratuko ditugu hiru ardatz, aldi berean:

- Ingurune irekiko zigor eta neurriak sustatzea.
- Birgizarteratzeko Euskal Sarea eraikitzea.
- Espetxeratzea birgizarteratzera zuzentzea.

Hiru ildo horiek osagarriak dira, eta espetxe-kudeaketaren helburu diren pertsonak askatasun-gabetzeko erregimen batean edo bestean egon baitaitezke.

Politika eraginkorrak izateko, garatu beharreko tresnak, gure eskumenen baitan, honakoak izango lirateke:

1.- Laguntza indibidualizatua, arreta berezia eskainiko zaie osasun mental, adikzio eta atzerritarren berriazko egoerei, eta tratamendu espezializatua behar duten beste egoerak gehituko dira, zeharkako genero-ikuspegia ahaztu gabe.

Nabarmendu behar dira tratamendu indibidualizatuarekin lotutako bi ekimen:

Alde batetik, osasun mentalen egoerak jorratzea.

Datuen arabera, espetxeratutako herritarren % 50ek arazo psikologikoak ditu, eta % 10ek gaixotasun psikiatrikoak.

Espetxe barruan, berariazko tratamendu psikologiko eta psikiatrikorako programak proposatuko ditugu, hala, pertsona horiei hirugarren graduako egoerara eta ingurune irekiko jardueretara pasatzea errazteko.

Bereziki kezkatzen gaituen beste egoera bat amen egoera da, hiru urte azpiko seme-alabak izan eta espetxean daudenak.

Espetxe Erregelamenduak barne hartzen dituen aukerak erabili behar direla uste dugu, Menpeko Unitateak sortu eta amak beren seme-alabekin egoteko.

Gazte eta droga-menpekotasuna dutenentzat ere Menpeko Unitate horiek sustatuko ditugu.

2.- Giza baliabide eta baliabide materialak planifikatzea, tratamendu indibidualizatu hori ahalbidetzeko.

3.- Langileak prestatzea, beren jarduna zigortuaren birgizarteratzera bideratzeko, eta arreta berezia eskainiko zaio genero-ikuspegiaren arloko prestakuntzari.

4.- Erakundeen arteko koordinazioa: birgizarteratzera bideratzeko, zerbitzu publikoen aldetik, egiten ari garen moduan, koordinazio handiagoa behar da Justizia, Osasuna, Hezkuntza, Lana, Enplegua, Gizarte Zerbitzu eta Segurtasuna arloen artean, baita erakunde maila guztien artean ere, Udal eta Aldundietatik hasi, eta Eusko Jaurlaritza, Botere Judizial eta Fiskaltzara bitarte.

5.- Hirugarren Sektorea Birgizarteratzeko Sarean txertatzea

6.- Justiziarekin lankidetzan aritzeko Zerbitzuak indartzea.

Berrezartze Justiziako Zerbitzua indartzea, baita Biktimei Arreta eskaintzekoa ere, eta, bereziki, Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua indartzea –berdimentsionatzen ari gara–, modu koordinatuan jardun dezaten.

Horiek ebaluatuko dituzte zigortutako pertsonak zigorra, espetxeratu aurretik, ingurune irekian betetzeko dituen aukerak, eta ebaluazio hori

azitegiei eskainiko zaie zigorraren exekuzioa birgizarteratzeko modu eraginkorrean egitea erabaki dezan, askatasun-gabetzearen zigorra ekiditeko indarrean dagoen legediak hala arautzen badu.

Hala, Komunitatearentzako Lanak aplikatzea sustatu nahi dugu, modu orokorrean, eta zigorren ordeztar berriazko tratamenduak aplikatzea, hala nola, osasun mentalekoak edo droga menpekotasunaren alorrekoak.

Jaun/andreok, azaldu ditudanak dira aplikatu nahi ditugun ildo orokorrak, espetxeen transferentzia indarrean sartzen den unean.

Hasieran adierazi moduan, gure asmoak dira.

Transferentziarekin egin nahi duguna.

Garbi dugu zertarako nahi dugu.

Funtsean, Konstituzioak, indarrean dagoen legediak eta Europako zuzentzauek gidatutako ildoan hobetu eta aurrera egitea da, hau da, espetxearen birgizarteratze izaera indartzea.

Gure ikuspegia pertsoneri zuzendua dago.

Delitua egin dutenei, beren biktimei, jardun horretan funtsezkoak diren eremu publikoko eta hirugarren sektoreko pertsoneri eta, orokorrean, gizarte osoari zuzendua, horiek baliozta dezaten berrezartzeari zuzendutako politika gizarte hobea, integratuagoa eta seguruagoa lortzeko inbertsioa dela.

Eztabaida arrakastaz amaitzea espero dut, eta proposatzen dugun ereduak aberasteko aukera emango duten akordioetara heltzea.

Lan eta Justizia Sailaren ustez, defendatzen dugun moduko ereduak akordio politiko zabalak behar ditu.

Akordio horiek gerta daitezkeen legealdi eta gobernagarritasun baldintza ezberdinez harago joan behar dira.

Gure aldetik, gaur azaldutako ildotik sakontzen eta lan egiten jarraituko dugu.

Espero dut, ahalik eta lasterren, osatutako behin betiko dokumentua eskaini ahal izatea, eta berau ekarpen berriak jasotzeko prest egongo da.

Besterik ez, eskerrik asko